ERRENTERIA
UDALA

AZTERKETA PARTE OROKORRA
EXAMEN PARTE GENERAL

GALDERA-SORTA
CUESTIONARIO

C1

LIBURUTEGIKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (7)
TÉCNICO/A AUXILIAR DE BIBLIOTECA (7)

ERRENTERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

2025ko MARTXOAK 7
7 de MARZO del 2025

LEHENENGO ARIKETA
GALDERA SORTA (0-10 PUNTU)
PRIMER EJERCICIO
CUESTIONARIO TEST (0-10 PUNTOS)

1. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluaren arabera, adierazi erantzun zuzena:

a. Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.

b. Oinarrizko hezkuntza nahitaezko eta doakoa da.
c. Botere publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute, legeen betetzea berma dadin.

d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

2. Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluaren arabera, adierazi zein den erantzun zuzena:

a. Gizabanakoen eta komunitateen ideologia, erlijio- eta kultu-askatasuna bermatzen da, eta haien adierazpenetan muga bakarra izango da legeak babesten duen ordena publikoa mantentzea.

b. Herritarrak behartuta egon daitezke beren ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.
c. Erlijio katolikoak estatu-izaera izango du; hala ere, botere publikoek kontuan hartuko dituzte Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak, eta lankidetza-harremanak izango dituzte gainerako erlijioekin.

d. Erlijio katolikoak estatu-izaera izango du, eta botere publikoek ez dute harremanik izango gainerako erlijioekin.

1. De conformidad con el artículo 27 de la Constitución Española de 1978, señale la respuesta correcta:

a. La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y a los derechos y libertades fundamentales.
b. La enseñanza básica es obligatoria y gratuita.
c. Los poderes públicos inspeccionarán y homologarán el sistema educativo para garantizar el cumplimiento de las leyes.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

2. De conformidad con el artículo 16 de la Constitución Española, señale la respuesta correcta:

a. Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los/las individuos/as y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.
b. La ciudadanía podrá ser obligada a declarar sobre su ideología, religión o creencias.
c. La confesión católica tendrá carácter estatal, aun así, los poderes públicos tendrán en cuenta las creencias religiosas de la sociedad española y mantendrán las consiguientes relaciones de cooperación con las demás confesiones.
d. La confesión católica tendrá carácter estatal y los poderes públicos evitarán relacionarse con las demás confesiones.

3. Konstituzioaren 25.1. artikuluan araututa dagoen legezkotasun printzipioak honako hau dio:

a. Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezarri, baldin eta gertatu diren unean ez badira delitu, une horretako indarreko legediaren arabera.

b. Herritar eta botere publiko guztiak legearen mende daude.

c. Pertsona batek falta bat egiten badu, eta une horretan falta hori arau hauste bat ez bada ere, falta horrengatik zehatu ahal izango dute, baldin eta epaia ematen den unean arau haustea bada.

d. Pertsona batek arau hauste administratibo bat egiten badu, zehatu egin ahal izango dute horregatik, nahiz eta arau hauste hori ez zehagarria izan gertatu den unean.

3. El principio de legalidad regulado en el artículo 25.1 de nuestra Constitución implica que:

a. Nadie podrá ser condenado o sancionado por acciones u omisiones que en el momento de producirse no constituyan delito según la legislación vigente en aquel momento.
b. Todos los/las ciudadanos/as y los poderes públicos están sometidos al imperio de la Ley.
c. Podrá ser sancionada una persona por la comisión de una falta, aun cuando no constituya infracción penal en el momento de producirse, siempre que si lo sea al dictarse sentencia.
d. Podrá ser sancionada una persona por la comisión de una infracción administrativa, aun cuando no constituya conducta sancionable en el momento de producirse.

4. Printzipio hauetako bat ez du bermatzen Espainiako Konstituzioak bere 9.3 artikuluan. Zein?

a. Atzeraeragin ezaren printzipioa, banakako eskubideen aldekoak ez diren edo eskubide horiek murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeragin ezaren printzipioa.
b. Arauen publizitatearen printzipioa.
c. Ekonomia eta kultura berdintasun printzipioa.
d. Legezkotasun printzipioa.

4. Uno de los siguientes principios no está garantizado en el artículo 9.3 de la Constitución Española:

a. El de irretroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales.
b. El de la publicidad de las normas.
c. El de la igualdad económica y cultural.
d. El de legalidad.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egoitza:

a. Lege organiko baten bidez finkatuko da.
b. Lege arrunt baten bidez finkatuko da.
c. Eusko Legebiltzarrak emandako lege baten bidez finkatuko da.
d. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez finkatuko da.

5. Conforme al artículo 4 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, la designación de la sede de las instituciones comunes de la comunidad autónoma del país vasco se hará mediante:

a. Ley Orgánica.
b. Ley Ordinaria.
c. Ley del Parlamento Vasco.
d. Decreto del Gobierno Vasco

6. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, Atariko Tituluko eskumenak zera dira:

a. Eskumen linguistikoak.
b. Oinarrizko eskubideei dagozkienak.
c. Eskumen esklusiboak.
d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 35. artikuluarekin bat etorriz, adieraz ezazu zein den erantzun zuzena Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari dagokionez:

a. Autonomia-erkidegoak hala eskatuta, eskumena duen organoak Estatuko magistratuen, epaileen eta idazkarien lanpostu hutsak betetzeko oposizioak deitu beharko ditu soilik.
b. Lehiaketa eta oposizio horietan bete gabe geratzen diren lanpostuak Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak beteko ditu, Aginte Judizialaren Lege Organikoak kasu horretarako jasotako arauak aplikatuz.
c. Estatuari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak eta administrazio horren jardunerako behar diren baliabide materialak eta ekonomikoak hornitzea, Aginte Judizialaren Lege Organikoan ahalmen hori Gobernuari erreserbatzen zaion modu berean, langileak hornitzeko sistemetan izan ezik, Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

6. Según la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, las competencias contenidas en el Título Preliminar son:

a. Competencias lingüísticas.
b. Competencias en orden a los derechos fundamentales.
c. Competencias exclusivas.
d. Las respuestas a) y b) son correctas.

7. De conformidad con el artículo 35 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de la Autonomía del País Vasco, señale la respuesta correcta respecto a la Administración de Justicia en el País Vasco:

a. A instancias de la Comunidad Autónoma, el órgano competente deberá convocar únicamente oposiciones para cubrir las plazas vacantes de Magistrados/as, Jueces/zas y Secretarios/as en el Estado.
b. Las plazas que quedasen vacantes en tales concursos y oposiciones serán cubiertas por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, aplicando las normas que para este supuesto se contengan en la Ley Orgánica del Poder Judicial.
c. Corresponderá al Estado, la provisión del personal al servicio de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma y de los medios materiales y económicos necesarios para su funcionamiento, en los mismos términos en que se reserve tal facultad al Gobierno en la Ley Orgánica del Poder Judicial, salvo en los sistemas de provisión del personal, el conocimiento del Derecho Foral Vasco y del euskera.
d. Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

8. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 37. artikuluaren arabera, Lurralde historikoetako foru erakundeek, bakarreko eskumena izango dute honako gaietan:

a. Beren erakunde propioen antolaketa, araubidea eta jarduera.
b. Beren aurrekontuak prestatu eta onartzea.
c. Probintzia-mugak gainditzen ez dituzten udalaz gaindiko lurralde-barrutiak.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8. De acuerdo con el artículo 37 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, los órganos forales de los Territorios Históricos, tendrán competencias exclusivas dentro de sus respectivos territorios en las siguientes materias:

a. Organización, régimen y funcionamiento de sus propias instituciones.
b. Elaboración y aprobación de sus presupuestos.
c. Demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal que no excedan los límites provinciales.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

9. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. artikuluaren arabera, lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek izango dute administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna:

a. Arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.
b. Adingabeek, beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, ordenamendu juridikoaren arabera hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe egin dezaketen kasuetan. Salbuespen da adingabe ezgaituen kasua, ezintasunaren neurria eragozpen denean kasuan kasuko eskubideez baliatzeko edo interesen alde egiteko.
c. Legeak espresuki hala adierazten duenean, ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasun eta entitateek eta ondare independente edo autonomoek.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

9. De conformidad con el artículo 3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a los efectos previstos en esta Ley, tendrán capacidad de obrar ante las Administraciones Públicas:

a. Las personas físicas o jurídicas que ostenten capacidad de obrar con arreglo a las normas civiles.
b. Las personas menores de edad para el ejercicio y defensa de aquellos de sus derechos e intereses cuya actuación esté permitida por el ordenamiento jurídico sin la asistencia de la persona que ejerza la patria potestad, tutela o curatela. Se exceptúa el supuesto de las personas menores incapacitados, cuando la extensión de la incapacitación afecte al ejercicio y defensa de los derechos o intereses de que se trate.
c. Cuando la Ley así lo declare expresamente, los grupos de afectados, las uniones y entidades sin personalidad jurídica y los patrimonios independientes o autónomos.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

10. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabide, idazki edo komunikazio batean interesdun bat baino gehiago badago, honako jarduketa hauek egingo dira:

a. Berariaz adierazi duten ordezkari edo interesdunarekin, eta, halakorik ez badago, lehenengo agertzen denarekin.
b. Lehenengo agertzen denarekin, eta, halakorik ezean, espresuki adierazi duten ordezkari edo interesdunarekin.
c. Berariaz adierazi duten ordezkari edo interesdunarekin, eta, halakorik ezean, horiekin guztiekin.
d. Berariaz adierazitako ordezkariarekin edo interesdunarekin bakarrik.

11. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 11. artikuluaren arabera, administrazio publikoek honako hauetarako soilik eskatuko diete interesdunei sinadura nahitaez erabiltzeko:

a. Eskabideak egiteko.
b. Erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko.
c. Errekurtsoak jartzeko.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

10. Tal y como se establece en el artículo 7 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cuando en una solicitud, escrito o comunicación figuren varias personas interesadas, las actuaciones a que den lugar se efectuarán:

a. Con el/la representante o el/a interesado/a que expresamente hayan señalado, y, en su defecto, con el que figure en primer término.
b. Con el/la que figure en primer término, y, en su defecto, con el/la representante o la persona interesada que expresamente hayan señalado.
c. Con el/la representante o la persona interesada que expresamente hayan señalado, y, en su defecto, con todos/as ellos/ellas.
d. Únicamente con el/la representante o la persona interesada que expresamente hayan señalado.

11. De acuerdo con el artículo 11 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las Administraciones Públicas solo requerirán a las personas interesadas el uso obligatorio de firma para:

a. Formular solicitudes.
b. Presentar declaraciones responsables o comunicaciones.
c. Interponer recursos.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

12. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluaren arabera, adieraz ezazu zein den erantzun zuzena administrazio publikoekin elektronikoki harremanetan jartzeko eskubideari eta betebeharrari dagokionez

a. Pertsona fisikoak behartuta egongo dira herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera.
b. Pertsona juridikoek une oro aukeratu ahal izango dute herri-administrazioekin komunikatzen diren beren eskubideak eta betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez gauzatzeko edo ez. Pertsonak edozein unetan alda dezake herri-administrazioekin komunikatzeko aukeratutako bidea.
c. Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera. Administrazio publikoekin komunikatzeko aukeratu duen bidea noiznahi aldatu ahal izango du norberak.
d. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak ez daude behartuta herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera.

12. De conformidad con el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, señale la respuesta correcta respecto al derecho y obligación de relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas:

a. Las personas físicas estarán obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas.
b. Las personas jurídicas podrán elegir en todo momento si se comunican con las Administraciones Públicas para el ejercicio de sus derechos y obligaciones a través de medios electrónicos o no. El medio elegido por la persona para comunicarse con las Administraciones Públicas podrá ser modificado por aquella en cualquier momento.
c. Las personas físicas podrán elegir en todo momento si se comunican con las Administraciones Públicas para el ejercicio de sus derechos y obligaciones a través de medios electrónicos o no, salvo que estén obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas. El medio elegido por la persona para comunicarse con las Administraciones Públicas podrá ser modificado por aquella en cualquier momento.
d. Las entidades sin personalidad jurídica no estarán obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas.

13. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluaren arabera, adierazi erantzun zuzena epeen zenbaketari dagokionez:

a. Interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan egun bat balioduna bada, eta administrazio-organoaren egoitzan baliogabea, edo alderantziz, balioduntzat hartuko da beti.

b. Legeak edo Europar Batasuneko Zuzenbideak beste zenbaketa bat adierazten ez badu, epeak egunetan jartzen badira, egun horiek naturalak direla ulertuko da, larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotakoak barne.

c. Epea hilabetetan edo urtetan ezartzen bada, egintza jakinarazi edo argitaratu den egun beretik edo administrazio-isiltasunez baiesten edo ezesten den egun beretik zenbatuko dira.

d. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

14. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluaren arabera, zein izango da ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago?:

a. Urtebete.
b. Hiru hilabete.
c. Hamar hilabete.
d. Sei hilabete.

13. Señale la respuesta correcta respecto al cómputo de plazos de acuerdo con el artículo 30 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas:

a. Cuando un día fuese hábil en el municipio o Comunidad Autónoma en que residiese la persona interesada, e inhábil en la sede del órgano administrativo, o a la inversa, se considerará hábil en todo caso.
b. Siempre que por Ley o en el Derecho de la Unión Europea no se exprese otro cómputo, cuando los plazos se señalen por días, se entiende que éstos son naturales, incluyéndose del cómputo los sábados, los domingos y los declarados festivos.
c. Si el plazo se fija en meses o años, éstos se computarán a partir del mismo día a aquel en que tenga lugar la notificación o publicación del acto de que se trate, o desde el mismo día en el que se produzca la estimación o desestimación por silencio administrativo.
d. Cuando el último día del plazo sea inhábil, se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

14. De conformidad con 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, ¿cuál será el plazo máximo en el que debe notificarse la resolución expresa cuando las normas reguladoras de los procedimientos no fijen el plazo máximo?:

a. Un año.
b. Tres meses.
c. Diez meses.
d. Seis meses.

15. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 33. artikuluaren arabera, zein errekurtso aurkeztu ahal izango da prozeduran presaz izapidetzekoa dela deklaratzen duen erabakiaren kontra?:

a. Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Akordioa agindutako organoaren aurrean.
b. Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkian goragoko mailako organo agindu emailearen aurrean.
c. Ezin izango da errekurtsorik aurkeztu prozedura presaz izapidetzekoa dela deklaratzen duen erabakiaren kontra, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzea.
d. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

16. 40/2015 Legearen 5.3 artikuluaren arabera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, Administrazio-organoren bat sortzeko, gutxienez honako baldintza hauek bete beharko dira:

a. Nola kokatuko den dagokion administrazio publikoan, eta zeinen mendean egongo den.
b. Eginkizunak eta eskumenak zehaztea.
c. Abian jartzeko eta jarduteko behar diren kredituen zuzkidura.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15. Según el artículo 33 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, ¿qué recurso cabe contra el acuerdo que declare la aplicación de la tramitación de urgencia al procedimiento?:

a. Recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que hubiera dictado el Acuerdo.
b. Recurso de alzada ante el órgano superior jerárquico que lo dictó.
c. No cabrá recurso alguno contra el acuerdo que declare la aplicación de la tramitación de urgencia al procedimiento, sin perjuicio del procedente contra la resolución que ponga fin al procedimiento.
d. Recurso contencioso-administrativo.

16. De conformidad con al artículo 5.3 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, la creación de cualquier órgano administrativo exigirá, al menos, el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a. Determinación de su forma de integración en la Administración Pública de que se trate y su dependencia jerárquica.
b. Delimitación de sus funciones y competencias.
c. Dotación de los créditos necesarios para su puesta en marcha y funcionamiento.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

17. Adierazi zein den erantzun zuzena administrazio-jarduera automatizatuari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 41. artikuluaren arabera:

a. Administrazio-jarduketa automatizatuen kasuan, aldez aurretik ezarri beharko da zer organo den edo diren eskudun, kasuan-kasuan, espezifikazioak, programazioa, mantentzea, gainbegiratzea eta kalitate-kontrola definitzeko, eta, hala badagokio, informazio-sistemaren eta iturburu-kodearen auditoretzarako.

b. Administrazio-jarduketa automatizatutzat hartuko da edozein prozedura, erakunde publiko batek, zati batez, bitarteko elektronikoz egina administrazio-prozedura baten barruan, enplegatu publiko baten zuzeneko esku-hartzerekin.

c. Era berean, bilera egiteko arduraduntzat jo behar den organoa adieraziko da.

d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

17. De conformidad con el artículo 41 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, señale la respuesta correcta respecto a la actuación administrativa automatizada:

a. En caso de actuación administrativa automatizada deberá establecerse previamente el órgano u órganos competentes, según los casos, para la definición de las especificaciones, programación, mantenimiento, supervisión y control de calidad y, en su caso, auditoría del sistema de información y de su código fuente.
b. Se entiende por actuación administrativa automatizada, cualquier procedimiento realizado parcialmente a través de medios electrónicos por un Organismo Público en el marco de un procedimiento administrativo y en la que haya intervenido de forma directa un/a empleado/a pública/o.
c. Asimismo, se indicará el órgano que debe ser considerado responsable a efectos de celebración de sesión.
d. Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

18. 40/2015 Legearen 47. artikuluaren arabera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, hitzarmenei buruzko baieztapen hauetatik **EZ** da zuzena:

a. Dokumentuak dira herri-administrazioek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin helburu erkide baterako hartutako akordioak, ondorio juridikoak dituztenak.

b. Ez dira hitzarmen, jarduteko protokolo orokor edo antzeko tresnatzat hartuko, baldin eta eduki orokorreko asmo-adierazpen hutsak badakarte edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea adierazten badute, betiere konpromiso juridiko zehatz eta galdagarriak formalizatzea ez badakarte.

c. Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.

d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

18. Conforme al artículo 47 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, cuál de estas afirmaciones sobre los convenios **NO** es correcta:

a. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.
b. No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.
c. Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del Estatuto de los Trabajadores/as.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

19. Adierazi zein den erantzun zuzena behin-behineko langileei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12. artikuluaren arabera:

a. Behin-behineko langileak honako hauek dira: izendapen baten bidez eta iraupen iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
b. Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da. Nolanahi ere, konfiantzazko edo aholkularitzako eginkizuna betetzeko izendatu dituen agintariak kargutik kentzen denean, harekin lotutako mota horretako langileak ere kargutik kenduko dira.
c. Behin-behineko langilea izateak merezimenduak ekarriko ditu funtzio publikora iritsi edo barne-sustapena egin behar denean.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

19. De conformidad con el artículo 12 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado/a Público/a, señale la respuesta correcta respecto al personal eventual:

a. Es personal eventual el que, en virtud de nombramiento y con carácter permanente, realiza funciones expresamente calificadas como de confianza o asesoramiento especial, entre otros, siendo retribuido con cargo a los créditos presupuestarios consignados para este fin.
b. El nombramiento y cese serán libres. El cese tendrá lugar, en todo caso, cuando se produzca el de la autoridad a la que se preste la función de confianza o asesoramiento.
c. La condición de personal eventual, podrá constituir mérito para el acceso a la Función Pública o para la promoción interna.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

20. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 14. artikuluaren arabera, honako eskubide indibidual hauetako zein **EZ** dute enplegatu publikoek beren zerbitzu-harremanaren izaera juridikoari dagokionez?

a. Egoera profesionalari dagozkion eginkizun edo atazak benetan betetzeko eskubidea, betiere, bere lanbide-karreran izandako aurrerapen profesionalaren arabera.
b. Adierazpen-askatasunerako eskubidea, inolako mugarik gabe.
c. Lanean diharduen atalari esleitutako helburuak lortzeko lanetan parte hartzeko eskubidea eta arduradunengandik egin beharreko atazen berri jasotzeko eskubidea.
d. Lanean norberaren intimitatea, orientazio sexuala, irudia eta duintasuna errespetatzeko eskubidea, batez ere, jazarpen sexuala, sexuagatikoa, morala eta lanekoa saihesteko.

20. De conformidad con el artículo 14 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado/a Público/a, cuál de los siguientes derechos de carácter individual en correspondencia con la naturaleza jurídica de su relación de servicio **NO** tienen las personas empleadas públicas:

a. Al desempeño efectivo de las funciones o tareas propias de su condición profesional y de acuerdo con la progresión alcanzada en su carrera profesional.
b. A la libertad de expresión, sin ningún tipo de límites.
c. A participar en la consecución de los objetivos atribuidos a la unidad donde preste sus servicios y a ser informado por sus superiores de las tareas a desarrollar.
d. Al respeto de su intimidad, orientación sexual, propia imagen y dignidad en el trabajo, especialmente frente al acoso sexual y por razón de sexo, moral y laboral.

21. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluaren arabera, Oinarrizko ordainsariak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen dira; honako hauek izaten dira beren osagai bakar-bakarrak:

a. Lanbide-sailkapeneko azpitalde bakoitzerako finkatutako soldata (edo talde bakoitzerako finkatutakoa, azpitalderik ez badago).
b. Hirurtekoak; zerbitzuan emandako hiru urteko denbora-tarte bakoitzagatik jasotzen den diru kopurua da hori; kopurua berdina da lanbide-sailkapeneko azpitalde bakoitzean (edo talde bakoitzean, azpitalderik ez badago).
c. Hirurtekoak; zerbitzuan emandako sei urteko denbora-tarte bakoitzagatik jasotzen den diru kopurua da hori; kopurua berdina da lanbide-sailkapeneko azpitalde bakoitzean (edo talde bakoitzean, azpitalderik ez badago).
d. a) eta b) erantzunak, biak, zuzenak dira.

22. Adierazi zein den erantzun zuzena printzipio etikoei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikuluaren arabera:

a. Enplegatu publikoen jokabideak oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla eta, sor litezkeenak.

b. Eraginkortasun-, gardentasun- eta berdintasun-printzipioen arabera jardungo dute, eta norberaren interesa lortzen dela eta erakundearen helburuak betetzen direla zainduko dute.

c. Herritarrei arreta ematen zaiela bermatuko dute, eskatzen duten hizkuntzan, nahiz eta hori ez izan lurraldeko hizkuntza ofiziala.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

21. De conformidad con el artículo 23 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado/a Público/a, las retribuciones básicas, que se fijan en la Ley de Presupuestos Generales del Estado, estarán integradas única y exclusivamente por:

a. El sueldo asignado a cada Subgrupo o Grupo de clasificación profesional, en el supuesto de que éste no tenga Subgrupo.
b. Los trienios, que consisten en una cantidad, que será igual para cada Subgrupo o Grupo de clasificación profesional, en el supuesto de que éste no tenga Subgrupo, por cada tres años de servicio.
c. Los trienios, que consisten en una cantidad, que será igual para cada Subgrupo o Grupo de clasificación profesional, en el supuesto de que éste no tenga Subgrupo, por cada seis años de servicio.
d. Las respuestas a) y b), ambas, son correctas.

22. De conformidad con el artículo 53 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado/a Público/a, señale la respuesta correcta respecto a los principios éticos:

a. Su conducta se basará en el respeto de los derechos fundamentales y libertades públicas, evitando toda actuación que pueda producir discriminación alguna por razón de nacimiento, origen racial o étnico, género, sexo, orientación sexual, religión o convicciones, opinión, discapacidad, edad o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.
b. Actuarán de acuerdo con los principios de eficacia, transparencia e igualdad, y vigilarán la consecución del interés propio y el cumplimiento de los objetivos de la organización.
c. Garantizarán la atención al ciudadano/a en la lengua que lo solicite, aunque no sea la lengua oficial del territorio.
d. Todas las respuestas anteriores son correctas.

23. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 11.2 artikuluaren arabera **EZ** da udalerriaren osagai bat:

a. Lurraldea.
b. Biztanleria.
c. Udala.
d. Antolaketa.

24. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikuluaren arabera, adierazi zein den erantzun zuzena udal-erroldari dagokionez:

a. Udal-errolda udalerriko auzotarrak, merkatariak edo turistak jasotzen dituen administrazio-erregistroa da.

b. Datuak udalerrian bizilekua eta ohiko bizilekua izatearen froga dira.

c. Datu horiei buruz ematen diren ziurtagiriak pribatuak eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo eta pribatu guztietarako.

d. Udal-erroldako inskripzioak lege honen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera bakarrik izango du eragina, inskripzioa eragin zuen egitateak irauten duen bitartean, eta, nolanahi ere, urtero berritu beharko da, bizileku iraunkorrerako baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren inskripzioaren kasuan.

23. De conformidad con el artículo 11.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, **NO** es un elemento del municipio:

a. El territorio.
b. La población.
c. El Ayuntamiento.
d. La organización.

24. De conformidad con el artículo 16 de la Ley 7/1985, de 2 abril 1985, reguladora de las Bases del Régimen Local, señale la respuesta correcta respecto al padrón municipal:

a. El Padrón municipal es el registro administrativo donde constan los/as vecinos/as, comerciantes o turistas de un municipio.
b. Sus datos constituyen prueba de la residencia en el municipio y del domicilio habitual en el mismo.
c. Las certificaciones que de dichos datos se expidan tendrán carácter privado y fehaciente para todos los efectos administrativos y privados.
d. La inscripción en el Padrón Municipal sólo surtirá efecto de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de esta Ley por el tiempo que subsista el hecho que la motivó y, en todo caso, deberá ser objeto de renovación periódica cada año cuando se trate de la inscripción de extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia permanente.

25. Udalerriek beren kasa edo elkarturik, udalerri guztietan, honako zerbitzu hauek eman beharko dituzte (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26.1 artikulua):

a. Argiteria publikoa, babes zibila, edateko uraren etxez etxeko hornidura eta hondakinen bilketa.

b. Argiteria publikoa, kale-garbiketa, edateko uraren etxez etxeko hornidura, merkatua, liburutegi publikoa eta bidaiarien hiri-garraio kolektiboa.

c. Edateko uraren etxeetako hornidura, hondakinen bilketa, estolderia eta herri barruko bideen zoladura.

d. Edateko uraren etxeetako hornidura, hondakinen bilketa, hiriko ingurumena eta suteen prebenitzea eta itzaltzea.

25. En todos los Municipios deberán prestar, en todo caso, los servicios siguientes (artículo 26.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local):

a. Alumbrado público, protección civil, abastecimiento domiciliario de agua potable y recogida de residuos.
b. Alumbrado público, limpieza viaria, abastecimiento domiciliario de agua potable, mercado, biblioteca pública y transporte colectivo urbano de viajeros.
c. Abastecimiento domiciliario de agua potable, recogida de residuos, alcantarillado y pavimentación de las vías públicas.
d. Abastecimiento domiciliario de agua potable, recogida de residuos, medio ambiente urbano y prevención y extinción de incendios.

26. 7/1985 Legearen 21. artikuluaren arabera, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, alkateak eskumen hauek ditu:

a. Udalaren egintzak kaltegarritzak jotzea.

b. Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
c. Ordenantzen erregelamendu organikoa onartzea.

d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

26. De acuerdo al artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el/la alcalde/sa ostenta las siguientes atribuciones:

a. La declaración de lesividad de los actos del Ayuntamiento.
b. La alteración de la calificación jurídica de los bienes de dominio público.
c. La aprobación del reglamento orgánico de las ordenanzas.
d. Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

27. Adierazi ondorengo hauetatik zein **EZ** den emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jarduera gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorretako bat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

a. Ordezkapen orekatua.
b. Gizonen kontrako indarkeria prebenitzea eta desagerraraztea.
c. Emakumeen ahalduntzea.
d. Gizonen inplikazioa.

